

## I. Biltzarra Ekonomia solidario, autogestio eta kooperatibismoaz

2008/02/27

**Martxoaren 6an eta 7an** I. Biltzarra egingo da HUHEZIn ekonomia solidario, autogestio eta kooperatibismoaz. Biltzarra Lanki Institutuak, HUHEZIK eta Mundukidek antolatu dute. Babesa, berriz, eman diote CSCE-EKGK erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Biltzar honek **espazio bat** ireki nahi du **eztabaidatzeko, aztertze eta hausnarketa egiteko** ekonomia solidarioaren errealitateaz, zer ahalmen dituen eta zer muga alternatiba izateko globalizazio neoliberalari, bai eta zer lotura dituen **kooperatibismoarekin**.

Ekonomia solidarioa, praktikan, ekimen sozioekonomiko txikien konstelazio batek osatua da, herri kolektiboak protagonizatua, zeinak, autogestioa erabilita, ahalegintzen baitira bere premiei erantzuten. **Ahalmen eraldatzailea** du, saiatzan dituelako forma ekonomiko berriak, bilatzen dutenak ekonomia demokratizatzea, berau jartzeko gizakiaren eta gizartearen zerbitzuan.

**Arrasateko kooperatiba esperientzia** ahalegintzen ari da loturak sortzen ekonomia solidarioa darabilten eragileekin, bilatzen baitu indartzea erakunde sozioekonomiko solidarioak eta berauek abiatzen dituzten taldeak.

### Egitaraua

#### Martxoaren 6a, osteguna

**09:00** Dokumentazioa banatu.

**09:15** Biltzarraren aurkezpena eta inaugurazioa.

**10:15** José Luis Coraggio: La otra economía. Potencialidades y retos.

**11:15** Atsedenaldia.

**11:45** Paul Singer: La promoción de la economía solidaria desde el Estado. La experiencia brasileña.

**13:00** Bazkaria.

**15:00** Marie Bouchard: La innovación social y la economía social. Perspectiva de Québec.

**16:00** Adrian Zelaia - Jon Sarasua: La dimensión autogestionaria en la Experiencia Cooperativa de Mondragón

**17:00** Eztabaida: Mercado, Estado e iniciativa social. Articulando espacios.

#### Martxoaren 7a, ostirala

**09:15** Luis Razeto: La economía de la solidaridad en América Latina: teoría y praxis.

**10:15** José Gómez: La economía solidaria en el Estado Español y en Europa.

**11:15** Atsedenaldia.

**11:45** Natalia Quiroga: La economía feminista y la economía social.

**13:00** Bazkaria.

**15:00** Eneritz Pagalday – Leire Uriarte: Conclusiones del seminario sobre experiencias de promoción de iniciativas socioeconómicas solidarias.

**16:00** Eztabaida: Economía solidaria ¿Alternativa al neoliberalismo?

**17:00** Ondorioak eta amaiera.

### Izen ematea

**Asistentzia doakoa** da, baina alde zuzenetik komeni da izena, abizena, erakundea eta harremanetarako datuak telefonoz (**943 71 41 57**) edo



mezu elektroniko bidez (*sarrera@huhezi.edu*) ematea, **otsailaren 29a baino lehen.**